

Biltzen diren materialak




Gailuak:

kamerak, proiektagailuak,
lokailuak, etab.




Dokumentu grafikoak:

aldizkariak, liburuak,
gidoiak, etab.




Filmak:

35mm, 16mm, 9,5mm,
8mm, Super8, etab.



Beste material batzuk:

bobinak, latak, bazterkinak,
beste dokumentu batzuk,
etab.



Beste formatu batzuk:

magnetikoa (VHS, Betacam,
etab.), DVDa, DCPa, disko
gogorrak.



Zalantzak:

zalantza, iradokizun
eta eskaera guztiei
erantzuten zaie.

GURE OROIMENAREN FOTOGRAMAK

NAFARROAKO

FILMOTEKAKO ARTXIBOA

848 424 750

filmoteca.archivo@navarra.es

LIBURUTEGI ZERBITZUA

848 427 784

cflamarg@navarra.es

*Paseo Antonio Pérez Goyena, 3
31008 Pamplona/Iruña*

Material orok du balioa

BNL BIBLIOTECA DE NAVARRA
NAFARROAKO LIBURUTEGIA

B Bibliotecas Públicas de Navarra
Nafarroako Liburutegi Publikoak

Filmoteca | **Nafarroako**
de Navarra | **Filmoteka**
ARCHIVO | ARTXIBOA

Nafarroako  **Gobierno**
Gobernua **de Navarra** 



Entrega nola formalizatzen den

Bi aukera daude:

GORDAILUA

- Gordailua zehazten ez den epe baterako egiten da, materiala ongi kontserbatuko dela bermatzeko. Gordailugileak nahi duenean berreskuratu dezake bere materiala artxibotik.
- Gordailugileak beretzat gordetzen ditu jabetza eta irudien komunikazio publikoko eskubideen titulartasuna.
- Proiektu batek hedapen publikoa egin nahi badu, gordailugilearen baimen sinatua behar du.
- Material digitalizatuaren kopia bat ematen zaie gordailugileei.

DOHAINTZA

- Materiala ezin da artxibotik jaso. Filmotekaren Artxiboari lagatzen zaizkio eskubideak.
- Irudiak komunikazio eta erreproduktzio publikorako erabiltzen diren bakoitzean, artxiboak horren berri ematen die dohaintza-emaileei.
- Material digitalizatuaren kopia bat ematen zaie dohaintza-emaileei.

Zer da artxiboa?

Filmotekako Artxiboak zaintzen du Nafarroarekin zerikusia duen ondare filmografikoa, orain arte aurkitu dena; profesionalek, zaletuek nahiz familiek grabatutakoa. Dokumentu horiek zinemaren memoria eratzen dute gure lurraldean, non tradizio eta kultura hagitz aberatsak ditugun, eta helburu nagusia da material horiek zaindu, babestu, dokumentatu eta hedatzea.

Haren egitekoa

Zinematografia arte berrienetako bat dugu eta oso bizkor hondatzen da. Horregatik, material horiek tenperatura eta hezetasun jakin batzuetan biltegitratzen dira, kontrol zorrotz batekin. Horrela, ondarea ongi babestu eta zaintzea da Filmotekako Artxiboak duen zeregin nagusia.

Artxiboak funtsak berreskuratu, dokumentatu eta digitalizatzeko lan zorrotz bati ekin zion.

Eta, gaur egun, Nafarroako Filmotekak 15000 material ditu biltegitaturik.

- Film-materiala: 3542
- Material optiko eta magnetikoa: 3049
- Gailuak: 131
- Dokumentuak: 4952
- Bestelako materialak: 3000 baino gehiago



Kanpainaren helburuak



AURKITZEA

Nafarroari buruzko material galdua aurkitzea.



ENTZUTEA

Ahozko lekukotasunei garrantzia ematea funtsak zuzen katalogatu eta dokumentatzeko.



DIGITALIZATZEA

Ahalik eta material gehien kontserbatzea formatu digitalean.



DOKUMENTATZEA

Nafarroako lurraldearen irudizko informazioa aberastea.



KONTSERBATZEA

Nafarroako Ondare Filmografikoa bildu eta zaintzea.



KONEKTATZEA

Sareak ezartzea lurraldearen eta liburutegien artean, eta liburutegien eta Filmotekako Artxiboaren artean.